

2015/07/21(e)ko saioa

LEHENDAKARITZA X. LEG.

Foru Aldundien bultzada ekonomikoa gazteriaren artean indarkeria prebenitzeko Beldur Barik programari.

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA X. LEG.

1.280.000 € diru-laguntzatan, Euskadi helmuga hobetzeko lurralde-proiektu turistikoak babesteko.

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA X. LEG.

Jaurlaritzak 35 milioi euro bideratuko ditu etxebizitzan errendamendua eta zaharberritzea sustatzeko.

Erakunde finantzarioekin hitzarmena, etxebizitzak erostera eta zaharberritzera bideratutako maileguei buruzkoa.

5,5 milioi euro, Lanbide Heziketako zentro publikoetan langabeei prestakuntza emateko.

Batzordekide berri bat Lanbideren administrazio-kontseiluan.

3,5 milioi euro ekintzailletza sustatzeko.

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.

54,4 milioi euro 2014/15eko unibertsitateaz kanpoko beketarako.

Oxfordeko Unibertsitateko St Antony College.

Kongresuak eta zientzia bilerak egiteko laguntzak.

Atleta Beteranoen Europako Txapelketa.

350.000 euro liburutegi publikoetan teknologia berriak ezarri eta garatzeko.

460.000 euskarazko ikasmaterialetarako.

200.000 € euskarazko ikasmaterial digitaletarako.

100.000 eurok euskarazko curriculum-materialak prestatzeko.

76.000 euro Euskaltzaindiari.

Pistako Beteranoen Kluben Espainiako Txapelketa 2015.

Donostiako (Gipuzkoa) konplexu monumentala, Funikularra eta Igeldo Parkea.

OSASUN SAILA X. LEG.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Osasun Sistematan pertsonak dituzten eskubide eta betebeharren Adierazpen berria onartu du.

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA X. LEG.

Gobernu Kontseiluak Gasteizko Mendi Garaiak kontserbatzeko eremu berezi (KEB) gisa izendatu ditu.

Eusko Jaurlaritzak 1,8 euroko diru-laguntzak emango ditu garapen jasagarria sustatzen duten toki-erakundeek ekintzetarako.

Eusko Jaurlaritzak Ondare Naturala lurraldearen gaineko zaintza-akordioek bidez kontserbatzeko diru-laguntzen deialdia egin du.

Iosu Madariaga, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Presidentea.

Urak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak uraren euskadiko kanonaren % 5 hegoaldeko herrialde pobretuei emango diete, ura eta saneamendu-zerbitzuak eduki ditzaten.

Eusko Jaurlaritzak ETSren esku ipini du Ibarbengoako geltoki berria jarduteko ardura, baita Urdulizko trenbide-pasabidea lurperatzeko eta trenbideko lanen zuzendaritza ere.

Eusko Jaurlaritzak premiazkoztat jo du Gartxetako EUTetik Gorbeoko biltegi berrirainoko bulkadako proiekturako behar diren baliabideak desjabetzea.

Eusko Jaurlaritzak premiazkoztat jo du Aramako eta Alzagako

saneamendu-proiektua.

LEHENDAKARITZA X. LEG.

Foru Aldundien bultzada ekonomikoa gazteriaren artean indarkeria prebenitzeko Beldur Barik programari.

Erabakia, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea baimentzekoa. Helburua: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari buruzko "Beldur Barik" erakunde arteko kanpaina garatzea eta elkarrekin finantzatzea.

Erabakia, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea baimentzekoa. Helburua: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari buruzko "Beldur Barik" erakunde arteko kanpaina garatzea eta elkarrekin finantzatzea.

Erabakia, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea baimentzekoa. Helburua: emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari buruzko "Beldur Barik" erakunde arteko kanpaina garatzea eta elkarrekin finantzatzea.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak gazteriaren artean emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko Beldur Barik erakunde arteko kanpainaren garapenerako eta finantziatorako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta EAeko hiru foru aldundien arteko hiru hitzarmen baimentzea onartu du. Kanpaina hau Emakunderekin batera, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek finantzatzen dute aldi berean, EUDelen laguntza dauka, eta baita Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailarena, EHUrena eta EITBrena. Gaur hiru foru aldundiekin sinatu beharreko hitzarmena egiteko baimena onartu da, zeinaren bitartez Bizkaiko Foru Aldundiak 35.000 euro jarriko ditu, Gipuzkoako aldundiak 18.705 eta Arabakoak 9.351 euro. Emakundek 100.000 euroekin finantzatzen du programa.

Beldur Barik lehiaketa programaren ekintza nagusienetako bat da. 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta adierazpen artistikoak saritzen ditu. Lan horiek erakutsi behar dute nola neska eta mutilek ezberdintasun egoerei aurre egiten dieten Beldur Barik jarrerarekin. Alegia, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, elkarkidetzeta eta indarkeria sexistaren bazterketa irmoa adierazten dituzten jarrerekin.

Aurten, ikus-entzunezko lehiaketa (irailaren 11an hasiera emango zaiona) eta Topaketarekin batera (Azaroaren 28an Amurrion ospatuko dena), berritasun bezala udalerrri ezberdinetan jaien inguruan Beldur Barik Gunea esparruen sorkuntza proposamena luzatzen da. Ekimen honen sorrera, jai eta aisialdi esparruetan zentratuta, gazteria indarkeria matxistaren kontrako konpromisoa hartzeko beharrea dago, beti errespetuan, berdintasunean eta autonomia jokabide eta jarrerak bultzatuz. Beldur Barik Guneko helburua arazo hau saihesteko nesken ahalduntze jarrera bat garatzea eta mutilen erantzunkizun eta interpelazioa bultzatzea da.

Horretarako, jaietan gazteen artean banatzeko material ezberdina diseinatu da (erasoak saihesteko gida,

pegatinak, txapak...), jai esparruetarako musika eta kuña iradokizunak, eta neska eta mutilentzako tailerrak. Sentsibilizazio eta jaietan ematen diren eraso sexisten aurrean erramintak luzatzeko.

Gainera, aurten Beldur Barik programa gehiago zabalitzen da, izan ere, ikastetxeetan erabiltzeko zenbait unitate didaktiko sortu dira aurreko urteetako lanetan oinarrituta.

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA X. LEG.

1.280.000 € diru-laguntzatan, Euskadi helmuga hobetzeko lurralde-proiektu turistikoak babesteko.

LABURPENA

Gaur, kontseiluan, Eusko Jaurlaritzak 1.280.000 #-ko diru-laguntzak onartu ditu, Euskadiko helmugan erakarmena eta kalitatea hobetzeko turismo-proiektuak babesteko, eta, hartara, fluxu turistiko berriak sortzeko eta dinamizatzeko.

Honelako proiektu motak lagunduko dira:

a) helmugan erakarmena hobetuko duten lurralde-proiektu turistikoak.

b) berrikuntzaren bitartez helmugan kalitatea eta lehiakortasuna hobetuko eta turismo jasangarri eta arduratsua garatuko duten proiektuak. Atal horretan, hauek hartuko dira aintzat:

Basquetour - Turismoaren Euskal Agentziak sustatutako eta kudeatutako helmugan lehiakortasuna hobetzeko proiektuak.

Kalitatearen eta ingurumenaren kudeaketarako erreferenteak ezartzeko proiektuak.

Jasangarritasun-erreferenteak ezartzeko proiektuak.

Laguntzen onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak eta irabazi asmorik gabeko pribatuak, baldin eta turismo-jarduera garatzeko eta sustatzeko eskumena edo helburua badute.

Tokiko alorrean jarduten duten erakunde publikoak (udaletxeak, tokiko erakunde autonomoak, tokiko enpresa-erakunde publikoak eta titulartasun publikoko merkataritza-sozietateak).

Eskualde-mailan nahiz eskualdez gaindikoan jarduten duten erakundeak: koadrila eta mankomunitateak, garapen-agentziak, landa-garapenerako elkarteak, turismoko partzuergoak, fundazioak eta beste erakunde eta elkarteak.

Laguntzok eskatzeko, telematikoki izapidetu behar da eskaera, epe honetan: 2015eko abuztuaren 1eko 9:00etatik, urte bereko irailaren 4ko 12:00ak bitarte.

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA X. LEG.

Jaurlaritzak 35 milioi euro bideratuko ditu etxebizitzaren errendamendua eta zaharberritzea sustatzeko.

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko dena, 2015. urtean etxebizitzaren eta lurzorua arloan babes daitezkeen jardunetarako formalizatutako maileguen interes-tasen sorospenerako.

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko dena, alokairuaren sustapena 2015eko laguntzeko aurrekontua osatzeko.

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko dena, 2015. urtean etxebizitzak birgaitzeko diru-laguntzak finantzatzeko.

LABURPENA

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Ángel Toñak, hala proposatuta, Gobernu-Kontseiluak 35 milioi euroko diru-laguntza sorta bat onartu du gaur -2014an baino milioi bat gehiago-, arrendamendua sustatzeko (alokairu babestuko etxebizitzak eraikitzeko diru-laguntzen bitartez), bai eta eraikinen zaharberritzea bultzatzeko ere, (jabe-komunitateei eta partikularrei diruz lagunduz, eraikin eta etxebizitzak zaharberritzeko).

Jaurlaritzak gaur onartutako neurriak etxebizitzaren errehabilitazioari, errentamenduaren sustapenari eta formalizatutako maileguen interes-puntuaren subsidiazioari buruzkoak dira zehazki.

Aurtengo aurrekontu-ekitaldian, Jaurlaritzak 14,7 milioi euro bideratuko ditu 16.000 etxebizitza inguru zaharberritzeko, guztiak ere Etxebizitzak Birgaitzeko RENOVE Planean bilduak. Laguntza horiei esker, 2014an, 12.000 etxebizitza zaharberritu ziren.

Gainera, 13 milioi euro bideratuko ditu Jaurlaritzak errentamendua sustatzera. Lerro hori alokairurako etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak sustatzeagatik sustatzaile publikoei eta pribatuei eman beharreko diru-laguntzetarako izango da. Baimendutako zenbateko horren bidez alokairuko 400 etxebizitza eta zuzkidura-bizitoki inguru diruz laguntzea aurreikusten da (errotazio-alokatzeak).

Azkenik, 2015ean etxebizitzaren eta lurzorua arloan babes daitezkeen jarduketengatik formalizatutako maileguen interes-puntuaren subsidiaziorako laguntzak ere onartu ditu kontseiluak; 7,2 milioi euroko partida bat bideratu da hartarako. Diru-laguntzen lerro horrek alokairua sustatzeko maileguengatik interes-tasen subsidioengatik kostuak estaltzen ditu.

Mailegutuan 90 milioi euro ematea du helburutzat, Jaurlaritzaren eta finantza-erakundearen arteko hitzarmen finantzarioaren babesean. Subsidioengatik zenbatekoak subsidioek berekin dakartzen mailegu-kostuak estaltzen ditu (alokairua eta lurzorua bakarrik; erosketa, sustapen eta birgaitzera zuzendutakoek ez dute

subsidiarik).

Erakunde finantzarioekin hitzarmena, etxebizitzak erostera eta zaharberritzera bideratutako maileguei buruzkoa.

Dekretua, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arteko finantza-lankidetzakoa etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan.

LABURPENA

Eusko Jaurlaritzak kreditu-erakundeekin lankidetzak finantzarioan jarduteko dekretua onartu du; hain zuzen, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan jarduketa babestuetara bideratutako maileguen interes-tipoei buruzkoa da dekretua, eta, hasiera batean, 2015 eta 2016 urtean izango du indarraldia.

Dekretuak Euriborrean oinarritutako interes-tipoak onartzeko sistema mantentzen du, eta babestutako jarduketaren araberako diferentzial bat gehitzen. Enpresa eta erakundeei dagozkien jarduketa babestuak badira, diferentziala maximo eta minimo batek mugatutako tarte batean egongo da oraindik. Aldiz, batez ere partikularrek parte hartzen duten jarduketetan -hau da, babes publikoko etxebizitza erostea, azalera-eskubidean eraikitako babes publikoko etxebizitzaren jabeek lurzorua erostea eta eraikin eta etxebizitzak birgaitzea- bada, balio-tarte hori gehieneko diferentzial batek ordezkatzeko du, orain arte indarrean egon dena baino txikiagoa.

Neurriekin, finantzaketa-baldintza abantailatsuak jarri nahi dira pertsonen eskura. Ildo horretatik, amortizazio-epeak eta finantzazioaren mugak ere moldatu dira, hipoteka-merkatuan, arlo horretan izandako lege-erreformen ondorioz, gaur egun dauden inguruabarretara egokitzeko.

Halaber, ordaindu gabe dauden etxebizitzak berriz erosteko prozedura aurreikusi da dekretuan; hain zuzen, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jabe zordunari edo erakunde finantzarioari etxebizitza erostea, berme handiagoa eskaintzeko, hala, babes publikoko sistemari heldurik emandako jarduketa babestuen gaineko maileguei eta, hortaz, baita arrisku gutxiago ere alor finantzarioan.

5,5 milioi euro, Lanbide Heziketako zentro publikoetan langabeei prestakuntza emateko.

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa. Gastuak finantzatuko duena: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari egindako

kudeaketa-gomendioa, lehenasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei zuzendutako prestakuntza-programazioa gauzatzeko.

LABURPENA

Eusko Jaurlaritzak 5.497.992 milioi euro bideratuko ditu sare publikoko Lanbide Heziketako zentroetan langabetuak prestatzeko ikastaroak antolatzeko. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren zentroek 135 ikastaro emango dituzte aurten, eta 1.600 ikasle inguruk hartuko dute parte horietan.

Jaurlaritzak gaur onetsi duen partida langabetuen prestakuntza sustatzeko programa sorta baten barruan dago jasota; Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen ditu programa horiek guztiak.

Lanerako prestakuntza-ekintzak dira lanik gabeko langileei enplegarritasuna bultzatzeko eskaini ahal zaizkien zerbitzu nagusiak, horrelakoei esker beren kualifikazioa hobetzen eta arlo profesional jakin baten ezagutza sendotzen baitute.

Ikastaroak prestakuntza-defizita duten langabeei zuzenduta daude bereziki. Horiek kualifikazio-maila ertainak eskuratu behar dituzte sektore ekonomiko eta lanbide-arlo guztietan, industrian bereziki (fabrikazio mekanikoa, mantentze industrialak, automatismoak, automobilgintza...), baina baita mendeko pertsonentzako Arreta Soziosanitarioan ere.

Hain zuzen, 2014-2016 aldiko Enplegu Planaren barruan daude jasota lanerako prestakuntzari buruzko neurri guztiak. Xede hauek ditu aipatutako planak: Euskadin dauden enpleguak sendotzea, enpresa- eta produkzio-sarearen aldetik lanpostuak sortzea eta populazio aktiboaren enplegarritasuna areagotzea.

Batzordekide berri bat Lanbideren administrazio-kontseiluan.

Dekretua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak kargutik kentzeko eta beste batzuk izendatzeko dena.

LABURPENA

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Ángel Toñak, hala proposaturik, Gobernu-Kontseiluak Gizarte Ekonomiaren zuzendari Alfredo Ispizua Zuaza izendatu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren administrazio-kontseiluko batzordekide izan dadin, María Ubarrechena Cid-en ordez.

3,5 milioi euro ekintzailletza sustatzeko.

LABURPENA

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Ángel Toñak, Gobernuari jakinarazi dionez, gutxi barru EHAA-n argitaratuko dira Lanbidek, enplegua sustatzeko, kudeatzen dituen laguntza-ildoen deialdiak: orotara, 5.392.000 euro bideratu dira laguntzotara.

Lehendabiziko laguntza-sorta ekintzaileei bideratuko zaie, eta hiru laguntza-lerro bereizi ditu. Laguntzak 3,5 milioi eurokoak izango dira, guztira:

1. Enpresa-idea bat garatzeko laguntzak

Ekintzaileentzat diru-laguntzak aurreikusi dira deialdian, modu eskusiboan aritu daitezzen enpresa-idea bat sortzen, aztertzen eta egituratzen, ondoren bideragarritasun-plan batean zehazten bada, betiere.

2. Enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak

Bada beste laguntza-ildo bat ere, ekintzaileentzako toki-proiektuen barruan enpresa-proiektu berriak abiaraztea sustatzeko.

Laguntza horiek enpresa-jarduera berriak sortzen dituztenek jaso ahal izango dituzte. Laguntza mota horiek jasotzeko, Lanbiden lan-eskatzaille gisa izena emanda egoteaz gain, enpresa edota negozioa irekitzeko bideragarritasun-plan bat eduki beharko du interesdunak. Plan hori, dagokion erakunde kolaboratzaileak baliozkotu beharko du, laguntza-fasean.

Enpresa-proiektu berriak ezartzeko sustatzaileen tutoretza eta laguntza, udalerriek, udalerrien elkarteek, mankomunitateek, koadrilek edota haiei lotutako zein haien mendeko erakundeek gauzatu beharko dute.

3. Enpresa-jarduera bat sendotzeko laguntzak

Hirugarren laguntza-lerro bat ere onartu dute, hain justu, enpresaren eguneroko jardunaren kudeaketan ekintzaileei aholkularitza- eta laguntza-gastuekin laguntzeko. Era berean, Gizarte Segurantzaren langile autonomoen araubide berezian kotizatzen laguntzeko ere balioko du lerro honek.

Ekintzaileei laguntzeko diru-laguntzen deialdiari dagokienez, Gobernu Kontseiluak Lanbideren eta toki-erakundeen eta haiei lotutako eta haien mendeko erakundeen arteko hitzarmena sinatzea onartu du, negozio-ideiak aztertzen eta garatzeko eta enpresaritza-jarduera berriak abian jartzeko.

Enpresa-idea bat garatzeko edota toki-erakunde laguntzaileek enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzen kasuan (1 eta 2 puntuak), diruz lagunduko dira, halaber, ekintzaile onuradunak hautatzeko eta haiei laguntzeko nahiz tutoretza emateko jarduerak.

Beste laguntza-sorta batek Enplegu Zentroen Zerbitzuak garatzea babesten du. Laguntzak 1.892.000 eurokoak izango dira.

Orientazio-zerbitzuek (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren barruan 2011tik) informazioa, laguntza, motibazioa eta aholkularitza emateko ekintzak egiten dituzte, eta pertsona bakoitzaren egoera profesionala hartzen dute kontuan ikasteko, enplegua bilatzeko edota enpresa-ekimenak gauzatzeko ibilbidea kudeatzeko orduan.

Interesa duten pertsonak kontsultatzeko tresnak dituzte eskura Enplegu Zentroaren bulegoetan enplegua bilatzeko prozesuan erabil ditzaten, baita orientatzaileen laguntza ere.

Programa honetako laguntzek zerbitzu hori emateko orduan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean aritzen diren erakundeak hautatzeko prozedura bat egiteko balio dute, baita finantzatzeko ere.

Enplegu-zentroek taldeko ekintzak egin behar dituzte hamabost egunean behin -gutxienez lau pertsonarekin eta 3 ordukoak- norberak erabiltzeko eta enplegua bilatzeko tresnak ezagutarazteko.

Enplegu-zentroek ibilbide luzea dute Euskadin. Eusko Jaurlaritzak duela hamar urte ezarri zituen, enplegu-politika aktiboen eskumena autonomia-erkidegoari eman aurretik.

Gaur egun dauden 42 zentroek 30.000 lagun baino gehiago hartzen dituzte urtean; horietatik, hiru zentrok mugitzeko eta/edo komunikatzeko zailtasuna duten pertsonen irisgarritasuna bermatzen dute, gainera.

Era berean, ekintzaileei babesa emateko diru-laguntzen deialdiaren arloan, Lanbideren eta hala toki-erakundeen nola haiei lotutako eta haien mendeko erakundeen arteko hitzarmena sinatzea onartu du Gobernu Kontseiluak, negozio-ideiak aztertzeko eta garatzeko eta enpresaritza-jarduera berriak abian jartzeko.

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.

54,4 milioi euro 2014/15eko unibertsitateaz kanpoko beketarako.

Erabakia: unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2013-2014 ikasturteko deialdiaren diru-kopuruaren gehiketa gastuak finantzatzeko, 5.000.000 eurotik gorako gastua egiteko baimena hedatzeko dena.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gastua 1.400.000 eurotan areagotzeko baimena eman du, 2014/15eko ikasturtean unibertsitateaz kanpoko mailetan eskolatzeko ikasketa-laguntzen deialdia finantzatzeko.

Ikasketa-laguntza horiek 2014ko urriaren 21eko bileran onartu ziren, 53 milioiko zenbatekoan, eta horretarako bideratutako guztizko zenbatekoa 54.400.000 eurokoa da.

Ikasle bekadunen kopurua nabarmen areagotzeak eta 2014/2015eko ikasturtean diru-laguntza gehiago eman izanak eragin dute aurrekontu-gehitze hori. Zehatzago esanda, 1.416 ikasle bekadun gehiago izan ziren eta emandako diru-laguntzak 3628 gehiago izan ziren (ikasle bekadun batek osagai desberdinetan jaso ditzake bekak). Zifra horiek, gutxi gorabehera, 1.400.000 euro gehiagoko gastua ematen dute eta horietatik 1.160.000 euro jantoki-beketarako izango dira.

Unibertsitateaz kanpoko beketarako dirua

2013-2014ko ikasturtea: 53,05 milioi euro

2014-2015eko ikasturtea: 54,40 milioi euro

Ikasle bekadunen kopuruaren bilakaera hau izan da:

2013-2014ko ikasturtea: 124.868

2013:2014ko ikasturtea: 126.284 (+1.416)

Areagotze hori **emandako beken kopuruan** jasota agertzen da eta 3.628 diru-laguntza gehiago eman dira. Areagotze horretatik, 2019 laguntza jantoki-beken kopuruarena dira.

2013-2014ko ikasturtea: 186.381

2014-2015eko ikasturtea: 190.009 (+3.628)

Oxfordeko Unibertsitateko St Antony College.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren proposamenez, gaur onartu du 2015/2016 ikasturtean Oxford-eko Unibertsitateko St Antony`s College bisitatuko duten ikertzaileentzat dirulaguntza bat deitzen duen agindua.

52.382 euroko dirulaguntza hori ikasturte oso baterako (hiru hiruileko) izango da, izangaiek hiruileko bat edo biko egonaldi partzialak aukeratu ahal izango dituzten arren.

Ikertzaile bisitariak ondorengo diziplinetan egin ahal izango du ikerketa-lana: Historia Modernoa, Ekonomia, Gizarte Zientziak, Antropologia eta Nazioarteko Zuzenbidea.

Kongresuak eta zientzia bilerak egiteko laguntzak.

LABURPENA

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Agindu bat onartu du kongresuak eta zientzia bilerak egiteko laguntzetarako deia egiteko.

240.000 euroko diru-kopurua duten laguntza hauen helburua EAEn kongresuak eta zientzia bilerak egiten laguntzea da, oso tresna egokiak baitira ideiak eta ezagupen zientifiko eta teknologiko aurreratuak trukatu eta zabaltzeko, prestigio handiko ikertzaile eta irakasleen parte hartzea bultzatuz.

Ekintza hauek 2015 urteko bigarren seihilekoan egin behar dira.

Atleta Beteranoen Europako Txapelketa.

Erabakia, Fortuna Kirol Klubari zuzeneko diru-laguntza bat emateko, Europako Beteranoen Atletismo Lehiaketa 2013an antolatzerakoan sortutako defizita finantzatze aldera.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 15.000 euroko diru-laguntza zuzen bat Fortuna Kirol Klubari ematea onartu du, Atleta Beteranoen Europako Txapelketa 2013ko ekitaldian antolatu izanak eragindako defizita finantzatzeko.

350.000 euro liburutegi publikoetan teknologia berriak ezarri eta garatzeko.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, liburutegi publikoetan teknologia berriak ezarri edo/eta garatzeko diru-laguntza deialdia arautzen duen Agindua onartu du.

Deialdi honek 350.000 euroko diru kopurua du, eta Euskadiko udal edo toki erakundeak aurkeztu ahal izango dira bertara, baldin eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartuta dauden liburutegien gaineko eskumenik baldin badute. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAA-n agertu eta hurrengo egunean hasita.

460.000 euskarazko ikasmaterialetarako.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuaren proposamenez, gaurko bileran Agindu bat onartu du, eta agindu horren bidez dirulaguntzak deitzen dira unibertsitateaz kanpoko mailetako euskarazko liburu eta gainontzeko ikasmateriala erosteko (EIMA I).

Guztira 460.000 euroko zenbatekoa duten dirulaguntza horiek euskarazko irakaskuntzak ikasleei gastu gehiago ez sortzea dute helburu, erabilitako ikasmaterialaren arabera.

200.000 € euskarazko ikasmaterial digitaletarako.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko egunez agindu bat onartu du, Unibertsitate aurreko irakasmaitetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA 2.0).

Agindu honen xedea zera da: euskarazko ikasmaterial digitalak, oinarrizkoak zein osagarriak, prestatu edo egokitzeko eta hezkuntza-komunitatearen eskura jartzeko diru-laguntzak, 200.000 euro, arautzea eta horietarako dei egitea.

Unibertsitate aurreko irakasmaitetarako ikasmaterialak hartzen ditu deialdi honek kontuan. Helburu nagusia arlo horretan irakaskuntzan dagoen hutsunea betetzea da eta ikasle-irakasleei beren jardunerako ikasmaterialak eskaintzeko bideak jartzea.

100.000 eurok euskarazko curriculum-materialak prestatzeko.

LABURPENA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenari jarraituz, gaurko Gobernu Kontseiluak onartu du euskarazko curriculum-materialak prestatzeko laguntzetara dei egiten duen

agindua (EIMA IV).

Agindua honen jasotako 100.000 euroko laguntzaren bidez, euskarazko curriculum-materialak prestakuntza sustatu nahi da, gero EAEko irakasleek erabil dezaten materiala.

76.000 euro Euskaltzaindiari.

Erabakia, Euskaltzaindiari diru-laguntza zuzena emateko dena, JAGONET zerbitzuaren 2014. urteko plana, "Oroitidazkia" argitalpen elektronikoa eta hainbat lan informatiko finantzatzeko.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, EUSKALTZAINDIA Hizkuntza Akademiari 76.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea, programa kontratuan txertatu gabeko hiru egitasmo finantzatzeko, "JAGONET zerbitzuaren 2015. urteko plana", "Oroitidazkia argitalpen elektronikoa" eta hainbat lan informatiko egiteko diru-laguntza.

Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da. Lehenengoan, %70 ordainduko da aurrerapen gisa, eta bigarrenean gainerako %30, lanaren justifikazioa egin ondoren. Diru-laguntzaren justifikazioa 2016ko urtarrilaren 31 baino lehen egin beharko du Euskaltzaindiak, diru-laguntzari dagokion gastua gauzatu dela frogagarri diren fakturak eta lanen inguruko txosten zehatza aurkeztuz.

Pistako Beteranoen Kluben Espainiako Txapelketa 2015.

Erabakia, Arabako Atletismoaren Federazioari zuzeneko diru-laguntza bat emateko, atletismo-pistan diharduten beteranoen Espainiako VII. Lehiaketaren antolaketa finantzatze aldera.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 20.000 euroko diru-laguntza zuzen bat Arabako Atletismo Federazioari, Pistako Beteranoen Kluben Espainiako Txapelketa 2015 antolatzeko, ematea onartu du.

Donostiako (Gipuzkoa) konplexu monumentala, Funikularra eta Igeldo Parkea.

Erabakia, Monte Igeldoak, S.A., maiatzaren 27ko 84/2014 Dekretuaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ez onartzeko. Dekretu horren bidez Igeldoko (Donostia, Gipuzkoa) Funikularra eta Parkea kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko dena.

LABURPENA

GOBERNU KONTSEILUAK, HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUAREN PROPOSAMENEZ, "MONTE IGUELDO S.A." MERKATARITZA-SOZIJETATEAK DONOSTIAKO FUNIKULARRA ETA IGELDO PARKEA KULTUR ONDARETZAT, KONPLEXU MONUMENTALAREN KATEGORIAN, JOTZEN DITUEN DEKRETUAREN KONTRA JARRITAKO AUKERAKO BIRJARTZE-ERREKURTSOA EZESTE ERABAKI DU.

OSASUN SAILA X. LEG.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Osasun Sisteman pertsonak dituzten eskubide eta betebeharren Adierazpen berria onartu du.

Dekretua, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak **Euskadiko Osasun Sisteman pertsonak dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko Adierazpena** onartu du gaur, Osasun Sailaren proposamena aintzat harturik. Adierazpenak Euskadiko osasun-sistemari dagokionez herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak guztiak biltzen dituzten arauen edukia eta irismena biltzen, argitzen eta eguneratzen du; guztia ere, euskal-osasun sistemaren oinarrian dauden unibertsaltasun-, elkartasun-, ekitate-, zerbitzu-kalitate eta partaidetza-printzipioak aintzat harturik.

Jon Darpón Osasuneko sailburuak gaur bertan ezagutarazi du eskubide eta betebeharren Adierazpen berria; **pertsonak babesteko eta erantzukizunak finkatzeko esparru-tresna da**, eta osasunarekin zerikusia duten balioak sustatu eta babestea du xede. Osasuneko sailburuak esan du Adierazpena **oso aurreratua** dela aurreko Eskubide eta Betebeharren Kartarekin alderatuta (Osakidetzan 1989tik indarrean) eta beste autonomia-erkidegoetan nahiz Osasun Ministerioan indarrean daudenekin konparatuta. Darpónek nabarmendu du Adierazpen berria minimoen etika betetzen duen eskubide eta betebeharren katalogo hutsetik harago doala: **Maximoen etika sustatu nahi du, bikaintasunaren ideala; izan ere, osasun-sistemaren antolaketa eta kudeaketa onarekin zuzenean lotutako eskubideak jasotzen ditu**

lehen aldiz, eta, horiekin batera, pertsona zaurgarriei eragiten dieten eskubideak eta gaixotasun arraroak dituzten pertsonen beharrei buruzkoak; halaber, haurtzaro/nerabetasun, sexualitate/birsorkuntza, zahartzaroa eta bizitzaren amaierari buruzko eskubideak babesten ditu.

Araudi administratibo, zibil eta penaletik harago dauden hainbat betebeharrak ere jasotzen ditu, hiritar-etikaren ikuspegitik eska daitezkeenak.

Osasuneko sailburu Jon Darpónek adierazi duenez, Euskadiko osasun-sistemako pertsonen eskubideen eta betebeharren adierazpena lagungarria izango da osasun-laguntzaren izaera unibertsala, laguntza-kalitatearen hobekuntza, elkartasuna zein osasun-zerbitzuen sarbide eta erabilerako ekitatea areagotzeko, bai eta Euskadiko osasun-sistemaren jardueretan pertsonak are gehiago parte har dezaten ere.

BERRIKUNTZA NAGUSIAK

Lehen aldiz azaltzen dira **Euskadiko Osasun Sistemaren antolakuntza eta kudeaketa onarekin** zuzenean lotutako eskubideak, eta aitortzen da **erabiltzaileek eskubidea dutela etika demokratikoaren ikuspegitik gobernatu dadin**, eta Sistema eraginkorra eta herritarren osasun-beharrekiko egokia izan dadin. Euskadiko osasun-sistemaren jarduketetan **parte hartzeko eskubidea** ere bermatzen zaie; hots, modu aktiboan, zuzenean, edo taldekatzen diren eragileen nahiz ordezkatzek dituztenen bidez har dezaten parte.

Bestalde, lehen aldiz jasotzen da **kolektibo zaurgarrietako pertsonentzat babes-protokolo edo -programa espezifikoak jarraitzeko beharra**; izan ere, neurri bereziak behar dituzte osasun-sistemara eta sistema soziosanitariora berdintasun-egoeran jo ahalko dutela bermatzeko.

Hori horrela, honako irizpide hauek betetzen dituztenak dira **pertsona zaurgarri, edo kolektibo zaurgarrietako pertsonak**:

1. Barruko agenteen (egoera edo osasun psikofisikoa) edo kanpokoen eraginez (baliabideak, egoera soziokulturala, etab.), haien autonomia edo autokudeaketa mugatuta dutenak;
2. Neurri espezifikoak behar dituztenak, baliabide sanitario nahiz soziosanitarioetara berdintasun-egoeran eta diskriminaziorik gabe heltzea bermatzeko.

Irizpide horiek aintzat hartuta, honako kolektibo hauek identifikatu dira:

- Nahasmendu mentala duten pertsonak.
- Desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak.
- Tratu txarren eta babesgabetasunaren biktimak.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak.
- Egoera administratibo irregularrean dauden etorkinak.
- Baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonak.
- Pertsona transexualak.

Politika espezifikoei buruzko eskubideak erantsi dira, erabiltzaileak justiziaz, zuzentasunez eta errespetuz laguntzeko, ondoren deskribatzen diren kasuetan: egoera edo gaixotasun zehatzetan, **gaixotasun arraroak dituztenetan eta bizitzaren fase edo momentu jakinetan** arreta berezia behar dutenetan:

- Haurtzaroko eta nerabezaroko behar espezifikoak.
- Sexu- eta erreproduktzio-osasuneko behar espezifikoak.
- Adineko pertsonen behar espezifikoak.
- Bizitzaren amaierako behar espezifikoak.

Betebeharrei dagokienez, Adierazpenak **betebehar** batzuk zehazten ditu, araudi administratibo, zibil zein penalak jasotakoetatik harago doazenak, eta **herritarren etikaren ikuspegitik eskatu daitezkeenak**. Beste lurralde-eremu batzuetan indarrean dauden arauak eskubideak eta betebeharrak uztartzen ez dituzten irizpideak mantentzen jarraitzen dute. **Pazienteei eta erabiltzaileei autokudeaketarako eta erabakitzekeko gaitasuna emateak ardurak hartzea dakar, eta, ondorioz, betebeharrak izatea.**

Berrikuntzen artean, zehazten du Adierazpenaren **aplikazio-eremua ez dela Osakidetzako erabiltzaileetara bakarrik mugatzen, baizik eta Euskadiko Osasun Sistemako zentro pribatu itunduetan ere aplikatzen dela, bai eta kontratu bidez** Osasun Sailarekin loturarik ez dutenetan ere; azken horien kasuan, Adierazpenaren parte batean, behintzat.

Erabiltzaile guztiak dituzten eskubideak dira **eta laguntzako nahiz izaera sanitarioko harreman guztietan dira galdagarri**; osasun-informaziorako eskubidea, segurtasun klinikorako eskubidea, intimitaterako eskubidea, adostasun informatua izatekoa, gizonen eta emakumeen beharrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea betez aintzat hartzekoa, nor bere osasunari buruz dagoen informazioa izatekoa eta aurretiazko borondateak errespetatzekoa.

Amaitzeko, Dekretuak web orrian Eskubide eta Betebeharren Adierazpena argitaratzera behartzen du Osasun Saila, dekretua bera indarrean jartzen denetik sei hilabeteko epean; horrekin batera, edukiak eusten dituen **oinarri etiko eta juridikoaren azalpen-gida** argitaratu behar du. Era berean, Adierazpenean aipatzen diren arloetan egiten diren ekarpen etiko nahiz juridikoak erantsiko zaizkio aipatutako argitalpenari.

INSPIRATU DITUEN PRINTZPIOAK ETA BALIOAK

Osasun Sailak, Adierazpen berria prestatzeko orduan, **uneotan osasun-laguntzan nagusi diren balioak hartu ditu kontuan; hau da, autonomia eta bizi-proiektuak errespetatzea, egoera ahulenean dauden pertsonak babestea eta segurtasun klinikoa bermatzea**. Osasun-arloko profesionalen eta herritarren artean dagoen harremanean **eboluzio zientifiko eta teknikoagatik zein osasun-laguntzara bideratutako baliabideengatik azken urteetan izandako aldaketak** hartu dituzte kontuan, halaber, balio berri horiekin batera.

Era berean, Euskadin osasun-harremanak inspiratzen dituzten printzipioak ere oinarri ditu adierazpenak; besteak beste:

- Pertsonaren **askatasuna** errespetatzea, **duintasuna** eta **autonomia** bere osasunen eragina duten

erabakietan.

- **Bizitzari eta osotasun fisiko zein psikikoari** errespetua.

- **Berdintasuna eta diskriminazio eza** jaiotze, adin, nazionalitate, arraza, sexu, desgaitasun edo gaixotasun, erlijio, moral, iritzi, ideologia, egoera ekonomiko, hizkuntza, zein beste edozein egoera pertsonal, familiar edo sozialagatik.

- **Osasun-laguntzaren unibertsaltasuna** eta eskuragarri dauden laguntza-zerbitzuetara heltzeko aukera, benetako berdintasun-egoeran.

- **Elkartasuna eta ekitatea** osasun-zerbitzuetara jotzean eta haiek erabiltzean, eta osasun-zerbitzuen kalitatea.

- **Konfiantza** osasun-harremanean parte hartzen duten eragileen artean eta **konfidentzialtasuna** osasunari buruzko datuetan eta harreman klinikoetan sortzen diren informazioan.

- Errespetua **nortasunaren garapen askeari** eta norberaren bizitza-proiektuari.

- **Ardura eta parte hartzea** zure osasuna kudeatzen duten pertsonen artean.

EDUKIA

Bigarren kapituluan, eskubideak zehazten dira; eskubideok bost taldetan banatuta daude:

- **Euskadiko osasun-sistemaren antolaketari eta kudeaketari lotutako eskubideak.** 4. artikuluan jasotzen dira eskubideok, eta bertan zehazten da pertsonak Euskadiko osasun-sistema etika demokratikoaren balioan goberna dadin duten eskubidea; gobernatzeko modu horrek 2013ko maiatzaren 28ko bilkuran Gobernu Kontseiluak onartutako Administrazio Orokor eta Instituzionaleko kargudun publikoen eta aldi bateko langileen kode etikoa eta jokabide-kodea aintzat hartu behar du, eta, horrezaz gain, unibertsaltasun-, ekitate- eta elkartasun-printzipioetan oinarritu behar du, sistema eraginkorra, kalitatezkoa eta pertsonen osasun integrala bilatzea helburu nagusia izateko.

- **Osasun-politika espezifikoekin lotutako eskubideak,** 5-9. artikuluetan jasoak. Horietan aipatzen dira osasunaren prebentzio eta sustapenari buruzko politikak, ikerketa eta irakaskuntza, osasun-laguntza bizitzaren faseetara egokitzea eta egoera ahulean dauden pertsonen kolektiboentzako berariazko politikak.

- **Nork bere osasunaren kudeaketan modu arduratsuan parte hartzeari lotutako eskubideak.** 10. artikuluan jasotzen dira, eta osasun-sistemaren baliabideei eta antolaketari zein norberaren osasun-egoerari buruzko informazioa edukitzeko eskubidearekin daude lotuta, hitzez zein dokumentu bidez, parte-hartze eta autozaintza arduratsua ahalbidetzeko eta laguntzeko moduan.

- **Eskubideak laguntza-harremanetan.** 11. artikuluan jasotzen dira. Pertsona guztiek laguntza-harremanak direla eta eska ditzaketen eskubideak dira.

- **Osasun publikoaren arloko eskubideak** 13. artikuluan daude bilduta, eta informaziorako, parte hartzeko eta prestazioen segurtasunerako eskubideekin dute zerikusia.

Hirugarren kapituluan, **betebeharrak** zehazten dira. Betebeharrak ez dira politikari, kudeatzaile eta profesionalentzat bakarrik; aitzitik, **pertsona guztiei eragiten diete, Euskadiko osasun-sistemarekin duten harremanean. Baliabideak arduraz erabiltzeak, erakundearekin elkarlanean aritzeak eta segurtasun klinikoak** herritar guztiengan dute eragina. Eskubide/betebehar binomio bat dagoela esan dezakegu, hortaz: pertsona guztiok daukagu eskubideak, baina betebeharrak ere bai.

Laugarren kapituluan, keax eta erreklamazioak izapidetzeko prozedura arautzen da, eta, eskubide zein betebeharren Adierazpenean jasotakoa betetzearekin lotuta, **pertsonentzako arreta-unitate edo-zerbitzuak** daudela jasotzen da.

Xedapen Gehigarri Bakarrean zehaztutakoaren arabera, Adierazpeneko eskubide jakin batzuk **ezinbestean bete behar dira Osasun-administrazioarekin kontratu-loturarik ez duten osasun-egitura pribatuetan ere**; funtsean, osasun-informaziorako eskubidea, intimitaterako eskubidea, adostasun informatua izateko eskubidea eta aurretiazko borondateak errespetatzekoa. Pertsona guztiok daukaten eskubideen titulartasunarekin lotutako alderdiak dira, eta osasun-harremanen oinarritzko ardatza dira, osasun-jarduera garatzen den osasun-egitura publikoa ala pribatua den alde batera utzita. Osasun-egitura pribatu horietara jotzen duten pertsonak beren gain hartu beharreko betebeharrak ere jasotzen dira.

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA X. LEG.

Gobernu Kontseiluak Gasteizko Mendi Garaiak kontserbatzeko eremu berezi (KEB) gisa izendatu ditu.

Dekretua, Gasteizko Mendi Garaia Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena (ES2110015).

LABURPENA

KEBaren % 95 inguru Onura Publikoko Mendia da, eta 38 mendi katalogatu dira barruan

Gobernu Kontseiluak Kontserbatzeko Eremu Berezi (KEB) gisa izendatu ditu **Gasteizko Mendi Garaiak**, Arabako Lurralde Historikoan. Natura-guneak babesteko Europako figura bat da, hain zuzen, KEB izendapena; behin Europako Batzordeak onartzen duenean, Mendi Garaietarako aurreikusitako mugapena hedatuko da.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu **Ana Oregik** azaldu duenez, ekimenaren helburua hau da: Europako zuzentarauan ezarritako Batasunaren intereseko habitat naturalen eta fauna eta flora basa-espezieen zaintza eta lehengoratzeta bermatzea KEBetan, kontserbazio-egoera mesedegarri batean. Halaber, basa-hegaztien eta erregulartasunez heltzen diren hegazti migratzaileen biziraupena eta ugalketa ziurtatuta dago eremuak barne hartutako azaleran, Europako biodibertsitatearen mesedetan.

Gasteizko Mendi Garaiek (ES2110015 Europako erkidegoko erreferentzia) Arabako Lautadak hegoaldeetik mugatzen duen mendikatearen ekialdeko zatia eratzen dute; Arabako Mendialdearekin eta

Trebiñuko konderriarekin ere egiten dute muga. Iparraldean, Monasteriogureneko basoarekin, Ullibarri de los Olleros-Uribarri Nagusiarekin, Abesturirekin eta Andollurekin du muga. Mendikatea mendebaldetik ekialdera hedatzen da: Gasteizko Portuko basoetaraino, Okinako porturaino eta Gasteizko Uragona errekaraino. Gasteizko Mendi Garaien mendebaldeak, aldiz, Gasteizko basoen lerroari jarraitzen dio. KEBaren barnean ez dago jendea bizi den nukleorik; hala ere, bada horrelako nukleorik: Ullibarri de los Olleros-Uribarri Nagusia, Monasterioguren, Andollu, Aberasturi, Trokoniz eta Uribarrigutxi baserria.

Gasteizko Mendi Garaietako Kontserbatzeko Eremu Bereziak 2.228 ha-ko **azalera** du, eta 2.837 ha-ko azalera duen Gune Periferiko Babestu bat ezarri da.

Gasteizko Mendi Garaietako KEBa Trantsizioko Arabako Mendialde eta Haranetako erdialdean dago. **Lotura ekologiko ona** du mendebaldeko eremuekin, Tuio, Turiso eta Badaiaiko mendikateetako pagadi, erkamezti eta garriga-basoen bitartez. Are hobea da Entziaraino hedatzen eta harekin unitate funtzionala osatzen duen pagadi-continuumak eratutako lotura, bai eta Natura 2000 Sareko Izki (KEB ETA HBEB) eremu osagarriarekin duena, Iturrietako mendikateko pagadi basofiloen bitartez. Bi eremu horien artean, lhuda ibaia/ibarra igarotzen da (ES2110012); gutxi gizatiartutako ingurune bat da eta hiru guneon arteko lotura ekologiko funtzionalari eusteko aukera ematen du.

Iparraldean, handik hurbil, Arabako Lautadako Harizti-Uharten KEBeko zenbait harizti daude; esaterako, Argandoñakoak eta, bereziki, Añuako hariztia. Horiekiko lotura hobe daiteke, hariztion inguruko nekazaritza-matrizea lehengoratzten bada. Harizti uharteon bitartez, Salburuako Mendi Garaiekin lotura hobe liteke, Errekaberri eta Zerioko errekaetako bidez.

Gasteizko Mendiak Lotura Ekologiko Handiaren ardatzean daude: hain zuzen, Kantauriar mendilerroak - Pirinioak - Erdialdeko Mendigunea - Mendebaldeko Alpeak eratzen dute, eta gaur egun ari dira horren plan estrategikoa idazten. Ekimenak eskualdez gaindiko ikuspegia du; Arabako Foru Aldundia 2006ko urrian atxiki zen, diputatuen kontseiluarekin erabaki bidez.

KEBaren % 95 inguru Onura Publikoko Mendia da. **Onura publikoko mendi gisa katalogatutako 38 mendi sartzen dira, erabat edo partzialki, eremu horretan.**

HABITATAK

KEBaren azaleraren % 78tik gora **Batasunaren intereseko bederatzi habitatek** hartzen dute: nabarmentzekoak dira pagadi azidofilo atlantikoak, gorosti- eta hagin-oihanpeekin, **hariztiak, erkameztiak** eta **ameztiak**. KEBaren tontorrean, abeltzaintzako erabilera dela-eta, ordezkatzeko-eta-pagadako bazkalekuak daude.

KEBaren zati handiena bertako baso hostoerorkorrek hartzen dute. Baso-azalera 1.673 ha bat hartzen ditu; hau da, KEBaren % 75, gutxi gorabehera.

FLORA

Mendi horietan EEE Zuzentarauan sartutako bi espezie daude: *Narcissus asturiensis* eta *Narcissus pseudonarcissus*. Horiez gainera, Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan sartutako hainbat espezie ere, aspaldiko aipamenekin zenbait, eta gaur egun aurkitu ezin izan direnak: esaterako, *Arnica montana*, *Genista micrantha*, *Senecio doronicum*, *Ophioglossum vulgatum*, *Carlina acaulis*, *Scorzonera aristata* eta *Paris quadrifolia*.

Ilex aquifolium eta Taxus baccata espeziemen ugari ere topatu dira, mendiotako basoetan barreiatuak. Aipagarria da Pagogan mendiko ingurunea: gailurreko txilardien artean, haginak eremu txikiak kolonizatu ditu, oso dentsoki; hori ez ezik, aipatzekoa da tamaina handiko haginak daudela Pagoganerako bidean eta Zurbao mendian eta, azken gune horretan, tamaina ederreko gorosti ugari dago ere. Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan ageri dira bi espezieok, interes bereziko kategorian.

FAUNA

KEBaren baso-baldintzak ur-lehortarrentzat dira egokiak. KEBeko ur-lehortarren zerrendan, interes handiko espezieak ageri dira: **gailurretako uhandrea, uhandre marmolairea, txantxiku arrunta, zuhaitz-igel arrunta eta baso-igel jauzkaria**. Txantxiku arrunta ugaria da, gailurretako uhandrea eta zuhaitz-igel arrunta ohikoak; besteak, ordea, urriak, baita baso-igel jauzkaria ere.

KEBean hamabi narrasti-espezie ageri dira: horietatik, **apoarmatu korrontezala, musker berdea, horma-sugandila eta iparraldeko suge leuna** Habitats Zuzentarauan sartuta daude.

Nabarmengarriak dira, orobat, basoko eta baso-ertzeko hegaztien espezieak; besteak beste, **zapelatz liztorjalea, arrano sugezalea, miru beltza eta gorriak, arrano txikia, aztore arrunta, gabirai arrunta, belatz europarra, zata europarra, urubi arrunta, hontz ertaina, lepitzuli eurasiarra, katatxoria, okil beltza ertaina eta txikia, garrapoa eta gerri-txoria**.

KEBean, **urubi arrunten** lurralde ugari daude, baina baita **hontz zurienak** eta **ertainenak** ere. KEBa migrazio-gune bat da, eta bereziki nabaria da eztei ondorengoa.

Berrogei ugaztun-espezie erregistratu dira KEBean: horien artean, **ur-saguzarrak, Schreibers saguzarra, Kuhl pipistrela, baratze-saguzarra, gau-saguzarra** eta **muxar grisa**. Noizbait **ur-ipurtatsak** antzeman dira, ibai gutxi diren tokietan.

Eusko Jaurlaritzak 1,8 euroko diru-laguntzak emango ditu garapen jasangarria sustatzen duten toki-erakundeek ekintzetarako.

LABURPENA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak 1.810.000 euro bideratuko ditu garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten toki-erakundeentzat, Udal, Mankomunitate, beste Toki-erakunde batzuk, Toki-erakunde autonomo, Toki-garapenerako agentzia eta Tokiko merkataritza-sozietateentzako diru-laguntzak arautzen dituen eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu den aginduarekin bat etorritik.

Diru-laguntzak 2015eko urtarrilaren 1aren ostean hasi eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren lehentasunezko lerroei heltzen dieten proiektuentzat izango dira, ingurumen-eremu hauetan: lurzoru kutsatuak, klima-aldaketa eta atmosfera, kapital naturala eta biodibertsitatea, eta, azkenik,

jasangarritasunerako hezkuntza.

Aurrekontuan aurreikusten diren 1.810.000 euroetatik, 550.000 euro lurzoru kutsatuekin zerikusia duten proiektuentzat izango dira; 550.000 euro klima-aldaketari eta atmosferari buruzko proiektuentzat; 550.000 euro kapital naturalari eta biodibertsitateari buruzko proiektuentzat; eta 160.000 euro jasangarritasunerako hezkuntzari buruzkoentzat.

Eusko Jaurlaritzak Ondare Naturala lurraldearen gaineko zaintza-akordioen bidez kontserbatzeko diru-laguntzen deialdia egin du.

LABURPENA

160 mila euro, 2015 eta 2016an

Gobernu kontseiluak, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren agindu bitartez, diru-laguntzak deitu ditu Ondare Naturala aktiboki kontserbatzeko jarduerak finantzatzeko: zehazki, Euskadiko Auntonomia Erkidegoaren arloko lurraldea zaintzeko akordioetan sartutakoak lagunduko dira.

Gaur onartutako aginduan, kontzesiorako oinarriak ezartzen dira: 2015ean guztira **160.000** euro (2015ean: 80.000 # eta 2016an: 80.000 #).

Ana Oregi sailburuak azaldu duenaren arabera, deialdi honen bitartez, **lurraldea zaintzeko hitzarmenek ekarriko dute hainbat estrategia eta teknika juridiko ezartzea, eta, haien bitartez, lurralde-jabeak eta -erabiltzaileak inplikatu dira ondare naturala eta haren elementuak kontserbatzeko zereginean;** guztia ere aprobetxamendu- eta erabilera-eskubideen jabeen edo titularren artean eta lurraldea zaintzeko entitateen artean borondatezko hitzarmenak sinatuta.

Lurraldearen zaintza-akordioak diru-laguntza eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehen izapidetu behar dira, eta horietan parte hartzaileen identifikazioaren, indarraldiaren, eta egingo diren jardueren berri eman behar da, aginduan ezarritakoa betez.

Aginduaren arabera emandako laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntza gisa hartuko dira. Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen gastu osoa (% 100) hartu dezake. Irabazi asmorik gabeko erakunde bakoitzak gehienez bi proiektutarako eskuratu ahal izango du diru-laguntza.

Proiektu bakoitzerako eskatutako diru laguntza ezingo da 20.000 eurotik gorakoa izan. Diru-laguntzak bateragarriak izango dira, helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuk emandakoekin, Ingurumen eta Lurralde Politikako Saileko aurrekontuen kargura emandakoekin salbu, baldin eta horrek ez badu gehiegizko finantzaketa eragiten.

Diru-laguntza jaso ahal izango dute irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak, lurraldearen

zaintzan dihardutenak, eta, lurraldearen zaintzako hitzarmenen bidez, EAEko agindu honetan adierazitako jarduerak eta ekintzak gauzatzen dituztenak.

Zaintzaren adibideetako batzuk dira Natura 2000 Sarearen, bestelako naturgune babestuetan eta EAEko hezeguneetan kokatutako lurrak; interes komunitarioko flora eta faunako habitatak edo espeziak dituzten lurrak (hegaztien eta habitaten zuzentarauetan eta Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan bildutakoak).

Iosu Madariaga, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Presidentea.

Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Urdaibai Biosfera Erreserbako Patronatuko eta Batzorde Iraunkorreko ordezkari bat izendatzeko dena, eta Lehendakaria izendatzen duena.

LABURPENA

Gobernu-kontseiluak Iosu Madariaga Garamendi Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumeneko sailburuordea izendatu du Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Patronatuko eta Batzorde Iraunkorreko kide, baita Patronatuko presidente ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari gisa.

Madariagak Jose Antonio Galera, Arabako foru diputatu berria, ordeztuko du.

Urak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak uraren euskadiko kanonaren % 5 hegoaldeko herrialde pobretuei emango diete, ura eta saneamendu-zerbitzuak eduki ditzaten.

Erabakia, uraren kanonaren %5aren ingurukoa, herrialde pobretuetan uraren eskubidea eta saneamendua erabiltzea errazten duten jarduerak finantzatzeko.

LABURPENA

Eusko Jaurlaritzak berretsi duenez, Uraren Kanonarekin bildutako diruaren % 5 bideratuko du urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan. Urei buruzko 1/2006 Legean sortu zuten esandako kanona.

Uraren Euskal Agentziak biltzen ditu funts horiek, eta, orain arte, Garapenerako Nazio Batuen Programaren bitartez kudeatzen ziren. Hemendik aurrera, 2015ean bildutakotik abiatuta, Garapenerako

Lankidetzaren Euskal Agentziak hartuko ditu bere gain proiektuak finantzatzeko ardura, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lankidetzako erreminten bitartez, guztia ere hegoaldeko herrialde txirotuetan uraren eta saneamenduaren eskubidea baliatzea posible egiteko.

Eusko Jaurlaritzak Uraren Euskal Agentziaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren arteko elkarlan artikulatua eskatu du, uraren eta saneamenduaren alorreko lankidetzaproiektuetarako, bi aldeek sinatuko duten hitzarmenaren bitartez.

Eusko Jaurlaritzak ETSren esku ipini du Ibarbengoako geltoki berrian jarduteko ardura, baita Urdulizko trenbide-pasabidea lurperatzeko eta trenbideko lanen zuzendaritza ere.

Erabakia, Bilboko Hiri Trenbidearen (1. eta 2. Lineak) 2015eko proiektu eta obren inguruko zenbait jarduera Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari gomendiotan emateko dena.

LABURPENA

Eusko Jaurlaritzak Euskal Trenbide Sarearen esku ipini ditu berez Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eskumenekoak diren lan materialak, teniko-juridikoak eta zerbitzuetakoak; hain zuzen ere, Bilboko Trenbide Metropolitarraren proiektuak eta obrak egiteko eta haien segimendua egiteko (1 eta 2 lineak) 2015eko ekitaldian, kontuan izanda horrek ez duela esan nahiko eskumenen titulartasuna lagatzea, ezta jardunaren elementu sustantiboak ere.

Eskakizunaren xedea da Bilboko Trenbide Metropolitarraren proiektuak eta obrak (1 eta 2 lineak) egiteko eta jarraitzeko beharrezko baldintza teknikoak ezartzea da 2015erako, hala Ibarbengoako geltoki berria egiteko kanpoko aparkaleku eta guzti; bideari eta trenbideari eragiten dioten lanen zuzendaritza eta trenbide-azpiegituraren obra zibilaren zuzendaritza; Urdulizko geltoki berria eta trenbide-pasagunea lurperatzeko eraikuntza-proiekturako beharrezko instalazioak; eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak ETSri Bilboko Trenbide Metropolitarraren 1 eta 2 lineekin lotutako ematen dizkion azterlan eta proiektu osagarriak.

Eusko Jaurlaritzak premiazkotzat jo du Gartxetako EUTetik Gorbeoko biltegi berrirainoko bulkadako proiekturako behar diren baliabideak desjabetzea.

Dekretua, zeinaren bidez urgentziako deklaritzen baita Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoak, nahitaez

desjabetzeko, honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea: "Gartxetako EUTetik Gorbeoko biltegi berrirainoko bulkada, Gorbeoko biltegi berria eta La Antiguako (Urduña) auzorako hoditeria (1. fasea: Gartxetako EUT-Oruroko ARC) proiektua" burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak.

LABURPENA

Eusko Jaurlaritzak premiazkotzat jo du Bilbao Bizkaia Ur Partzuegoak, nahitaezko desjabetze bidez, Gartxetako EUTetik Gorbeoko tanga berrirainoko bulkadako proiekturako behar diren ondasunak eta eskubideak hartzea (Gartxetako EUTetik Gorbeoko biltegi berrirainoko bulkadako obrak eta Antiguako (Urduña) auzorako hoditeria -I. Fasea: Gartxetako EUTE-Oruroko ARC-).

Eusko Jaurlaritzak premiazkotzat jo du Aramako eta Altzagako saneamendu-proiektua.

Dekretua, zeinaren bidez urgentiako deklaritzen baita Gipuzkoako Foru Aldundiak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasunak okupatzea: Aramako eta Altzagako saneamenduaren proiektua (4-SC-49/11) burutzeko beharrezko ondasun eta eskubideak.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak premiazkotzat jo du Gipuzkoako Aldundiak beharrezkoak diren ondasun eta eskubide guztiak okupatzea, nahitaezko desjabetze bidez, Arama eta Altzagako saneamendu proiektua gauzatzeko.